



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak Zarzuela kontzertu dibertigarri batekin amaituko du denboraldia: ekainaren 25ean izango da, abeslari handiekin, BOSeKin eta Bilboko Koral Elkartearekin

- Vanessa Goikoetxea, Andeka Gorrotxategi, Itziar de Unda, Andrea Jiménez eta Christopher Robertson dira Zarzuelako saio dibertigarrienetako eta trufarienetako batzuk interpretatuko dituzten bost bakarlariak.
- *Ay, babilonio que marea* izenburudun kontzertua Arriaga Antzokiaren ekoizpen lana da eta Iker Sánchez Silva arduratuko da zuzendaritza musikalaz.
- Emanaldia ekainaren 25ean izango da, larunbatean, 19:00etan, eta harekin amaituko da 2021-2022 denboraldia.

Bilbo, 2022ko apirilaren 5a. – Arriaga Antzokiak atsegin handiz iragartzen du 2021-2022 denboraldiaren amaierako ikuskizuna: Zarzuela kontzertu bat. **Ay, babilonio que marea** izenburu iradokitzailearekin, Arriaga Antzokiak gau dibertigarria eskaini nahi die ikusleei, musikalki XX. mendeko lehen hamarkadetara eramanez. Mailarik goreneko bost ahots bakarlari izango dira gaueko protagonistak: **Vanessa Goikoetxea, Andeka Gorrotxategi, Itziar de Unda, Andrea Jiménez eta Christopher Robertson** arituko dira oholtzan, **Bilboko Koral Elkartearen** eta **Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS)** laguntzarekin. Eta batutan, zuzendaritza musikalaz arduratuz, **Iker Sánchez Silva** maisua izango dugu.

Kontzertua udan izango da, ekainaren 25ean, eta Arriaga Antzokiak denboraldia amaitzeko gau dibertigarria eskaini nahi du, eszenatokitik alaitasuna kutsatuz besaulki-patioan. Horretarako, aukeratutako errepertorioak Zarzuela handien konposizio ahaztezinak biltzen ditu. Horrela, Arriaga Antzokira joaten diren ikusleek Zarzuelen saiorik trufarienak eta ganberroenak igarriko dituzte, memoria kolektiboan gordeta daudenak —hala nola *Grant Kapitainaren ilobak*, *El dúo de la africana*, *La Gran Vía*, *Luisa Fernanda* edo *Faraoiaren gorrea*—, eta baita beste harribitxi batzuk ere, XX. mende hasieran Madrilgo eszenatokirik ezagunenetan modan jarri zen eta genero sikaliptikoa izena jaso zuenarenak. Beraz, kontzertuak gonbidapen bat egiten die ikusleei, garai hartako espirituan murgil daitezten, eskaintzen duen pikardia peto-petoarekin eta espontaneoarekin.

Musikak, eta iradokitzeko duen betiereko ahalmenak, argi ahuleko dantza-aretoetan zehar eramango gaituzte, bai eta barre egiteko prest, eta bere burua itxura vaudevilledarreko gozamen lotsagabeari emateko prest dauden ikuslez betetako

aretoetan barrena ere. Ekitaldirako aukeratutako izenburuak berak (***Ay, babilonio que marea***) aurkituko dugunaren berri ematen digu: musikaz eta zoriontasunez beteriko gaua izango da.

**ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK – Salgai asteazkenean, apirilaren 6an,
11:30etatik aurrera**

- 11,50 eta 36 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Ay, babilonio que marea

Zuzendaritza musikala:
Iker Sánchez Silva

Ahots bakarlariak:
Vanessa Goikoetxea
Andeka Gorrotxategi
Itziar de Unda
Andrea Jiménez
Christopher Robertson

Korua:
Bilboko Korál Elkarte

Orkestra:
Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS).

Produkzioa:
Arriaga Antzokia

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus